

LANDAKETA MARKOA

Gure barazkiak landatzerako orduan, beraien artean utzi beharreko tarteak ohiko zalantza izaten da... Oso garrantzitsua da landare bakoitza distantzia egokira landatzea; izan ere, gertuegi landatzen baldin baditugu, ez baitute toki eta elikagai nahikorik izango modu egokian hazteko eta ondorioz, indarrik gabe haziko dira. Distantzia handiegia uzten badugu ordea, gure baratzeko lursaila ez dugu ondo aprobetxatuko.

Landareak erosterakoan landareak duen neurria kontuan izaten badugu, eta irizpide hori erabiliz landatzen badugu, akats ugari egingo ditugu. Adibidez: letxuga baino zertxobait handiagoa da orburu-landarea, baina letxuga artean utzi beharreko tarteak 30 cmkoa den bitartean, orburuen artean metro inguruko tarteak utzi beharko dugu.

Landaketa markoa

Hori dela eta, arazo hauek ekiditeko, landaketa markoa erabiltzen da. Bi zenbaki dira; landareen artean utzi beharreko distantzia adieraziko digutenak. Alberjiniaren landaketa markoa adibidez, 40 x 70 da. Honek esan nahi du landareen artean 40 cmko tarteak utziko dugula eta alberjinia lerro edo ilaren artean 70 cm.

- Lehendabiziko zenbakia: landareen arteko distantzia.
- Bigarren zenbakia: landare lerro edo ilaren arteko distantzia.

Kontuan izan behar da barazki baten landaketa markoa begiratzen dugun tokiaren arabera, desberdinak izan daitekeela nahiz eta antzerakoak izan baratzezain bakoitzak bere lehentasunak izaten baititu. Gainera gune bakoitzeko klimaren arabera, landareen artean utzi beharreko tarteak pixka bat alda daiteke.

MARCO DE PLANTACIÓN

A la hora de plantar nuestras hortalizas, la distancia que hay que dejar entre plantas suele ser una de las dudas más recurrentes. Es importantísimo plantar cada planta a la distancia adecuada ya que si plantamos las plantas demasiado cerca, estás no tendrán ni espacio ni comida suficiente para crecer adecuadamente, por lo que crecerán sin fuerza; si, en cambio, dejamos demasiado espacio, desaprovecharemos mucho terreno de nuestra huerta.

Si nos fijamos en el tamaño que tiene el plantel cuando la compramos, y plantamos utilizando ese criterio, vamos a cometer bastantes errores. Por ejemplo, un plantel de alcachofa es un poco más grande que el de una lechuga, pero mientras que la distancia que hay que dejar entre lechugas es de unos 30 cm, entre alcachofas deberemos dejar alrededor de un metro.

Marco de plantación

Es por ello que para evitar esos problemas, se suele utilizar el marco de plantación. Son dos números, que nos indicarán la distancia que hay que dejar entre planta y planta. El marco de plantación de la berenjena, por ejemplo, es "40 x 70". Eso quiere decir que entre planta y planta de berenjena habrá que dejar 40 cm, mientras que la distancia entre las hileras de berenjenas deberá ser de 70 cm.

- Primer número: distancia entre plantas
- Segundo número: distancia entre las hileras de plantas

Hay que tener en cuenta que según donde miremos el marco de plantación de una hortaliza en concreto, puede que sea distinto, ya que aunque normalmente suelen ser parecidos, cada horticultor tiene sus preferencias. Además, según el clima de cada zona, la distancia que hay que dejar entre plantas puede variar un poco.